



SETEM HEGO HAIZEAK GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA-TEKNIKARI BAT HAUTATUKO DU DONOSTIAKO EGOITZARAKO

KONTRATAZIO-ALDIA

2024ko urtarrilean hasteko. Behin betiko kontratua.

LANALDIA

Lanaldi osoa.

SOLDATA

1.951,13 € gordin hilero (14 ordainsari).

LANTOKIA

SETEMen egoitza Donostian.

BALDINTZAK

- Unibertsitateko lizentziatura edo gradua, ahal izanez gero, gizarte-zientzietako eta zientzia juridikoetako alorrekoa.
- Garapenerako lankidetzako prestakuntza osagarri espezifikoa.
- Generoko prestakuntza espezifikoa frogagarria. Sentikortasuna, konpromisoa eta harreman berdinetarako jarrera pertsonala.
- Esperientzia frogagarria izatea GGKE-en arloan, gutxienez, urtebetekoa, zehazki, zeregin hauetan: identifikatzea, eratzea, jarraipena, gizarte-eraldaketarako hezkuntza-proiektuak ebaluatzea.
- Esperientzia izatea Euskal administrazio publikoen diru-laguntzak kudeatzen.
- Marko logikoaren ikuspegia menderatzea.
- Euskaraz soltura handiz egitea ahoz eta idatziz.
- Ofimatika.
- Ordutegi-malgutasuna

BALIOZTATUKO DIRA

- Ezagutza eta inplikazio pertsonala kontsumo kontzientearen, arduratsuen eta eraldatzailearen inguruan.
- Ofimatika Linux ingurunean.
- Euskadiko ehun soziala ezagutzea, batez ere, Gipuzkoakoa.
- Esperientzia frogagarria izatea GGKE-en arloan, zehazki, nazioarteko lankidetzako proiektuak identifikatzean, eratzean, jarraitzean eta ebaluatzean: urtebete landa-lanean.
- Esperientzia boluntarioak koordinatzean, taldean eta sarean lan egiteko prest egotea.
- Autonomia, erabakiak hartzeko gaitasuna, sormena eta ekimena.
- Gidabaimena eta noizean behin ibilgailu propioa erabiltzeko aukera izatea.

BETE BEHARREKO FUNTZIOAK

- Gainerako teknikariek eta boluntarioekin batera, SETEMek Gipuzkoan gizarte-eraldaketarako egiten dituen hezkuntza-jardunak diseinatzea, antolatzea eta egikaritzea.
- SETEMek Zarensare sarean dituen erakunde aliatuekin harremana sendotzea.
- SETEMen ordezkaria izatea Gipuzkoan parte hartzen duen sareetan.
- Koordinatzea SETEMeko gainerako teknikariek batera.
- Diru-laguntzen kudeaketa ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa.

Interesdunek aurkezpen-gutuna eta curriculuma bidali beharko dute honako helbide elektronikora, azaroaren 22ra arte (egun hori barne): direccion.euskadi@setem.org